

# Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

## KONFERENTZIAK

### Kultura zabaltzeko trebetasuna

**Nafarroako Museoa - Areto Nagusia**

**Astelehena / 10.30etan**

Hizlaria: Marga Meoro

Tailer hau Nafarroako erakusketa eremuan aritzen diren langileei zein arlo horretan interesa duten pertsoneri zuzenduta dago. Ikastaroa dohanik izango da eserlekuak agortu arte. Marga Meorok honako gaiak jorratuko ditu: komunikazio plangintza on bat eraikitzeko urratsak, marketin egokia prestatzeko aholkuak, marka baten osasuna neurtzeko eta hobetzeko zantzuak, etab.

### “Orain pentsatu, mundua pentsatu”

**Nafarroako Liburutegia. Proiekzio Aretoa**

**Astelehena / 19:00h.**

Hizlaria: Víctor Gómez Pin

Izenburua: “Zein zentzutan erlatibizatzen du Mekanika Kuantikoak filosofia?”

Sarrera doan eserlekuak agortu arte.

### Trantsizioak

**Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa.**

**Astearte / 19:00h.**

Hizlariak: Juan Pablo Fusi

Sarrea doan eserlekuak agortu arte.

### Poesia errezitala

**Nafarroako Liburutegia. 1. Solairu Aretoa**

**Asteazkena / 18:00etan**

Hizlaria: Regina Salcedo

Izenburua: “Mujer Varada”

Sarrera doan eserlekuak agortu arte

Regina Salcedok bere azken lanean bildu dituen olerkiak partekatuko ditu ikusleekin.

## ZINEMA

### Sicixia

**Nafarroako Filmoteka**

**Astearte / 20.00etan**

Sicixia Costa da Morten filmatuko film luzea da. Costa da Morte Antzinasunean Europako mendebaldeko azken puntutat hartzen zen, Finisterrae izenekoa erromatarrentzat.

Zuzendaritza: Ignacio Vilar

### **Breve encuentro**

**Nafarroako Filmoteka**

**Asteazkena / 20.00etan**

Zinemaren historiak eman duen maitasun-istoriorik hunkigarriena eta bikainena David Lean britaniarren obra hau da  
Zuzendaritza: David Lean

### **Foco Punto de Vista**

**Nafarroako Filmoteka**

**Osteguna / 20.00etan**

Izenburua: Memoria oculta

Mexiko Hirian zinema ikasten ari zen bitartean, Eva Villaseñor zuzendari gazteak agerraldi psikotiko bat izan eta denboraldi batez memoria galdu zuen. Zuzendariak bere buruak erregistratzen ez dituen garai bateko gertaerak berreraiki nahi ditu dokumental honekin.

### **Bajo el cielo - La piedra sagrada**

**Nafarroako Filmoteka**

**Ostirala / 20.00etan**

Zinema palestinarra eskaintzen duen zikloaren harira saio bikoitza Bajo el cielo eta La piedra sagrada filmen proiektzioarekin.

## **KONTZERTUAK**

### **Ana García Caraballos eta José Luis Echechipía**

Organo Musika Nafarroan

Izenburua: "Sintonizando infrecuencias"

San Nicolás Eliza

Larunbata / 20.00etan

"Sintonizando infrecuencias" izenburuak jolas egiten du irrati eta arte-testuinguruekin, berez ezohikoa den elkartze honi erreferentzia eginez.

### **Entrevoques Abesbatza (Cuba)**

**Igandea | 12:30h.**

Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloa

Zuzendaria: Digna Guerra

Abesbatza honek garai eta estilo guztietako musika interpretatzen ditu, hasi errenazimentuko polifoniatik (Espainiakoa, Ingalaterrakoa nahiz Italiakoa) eta buka musika garaikidean, barnean harturik beltzen espiritualak, Latinoamerikako folklorea eta Kubako musika ere, oro har.

## **DANTZA**

### **Intxaur-hauskailua**

**Baluartea - Aretoa Nagusia**

**Ostirala eta larunbata / 20:00etan.**

Antolakuntza: Baluarte Fundazioa

Dantza Konpainia Nazional

Koreografia eta Zuzendaritza Eszenikoa: José Carlos Martínez

Musika: Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Bi baldintzak bihurtzen dute Intxaur-hauskailu hau ohiz kanpoko gertakari: José Carlos Martinezen koreografia berriaren erabateko estreinaldia Baluarten egitea, Dantza Konpainia Nazionalak gauzatuta, eta, Baluarte Fundazioaren Denboraldiaren barnean, zuzeneko musika duen ballet batez gozatzeko lehen aukera izatea.

## **TAILERRAK**

### **VACA VII Proiektua (MARRUKA)**

**Huarte Zentroa**

**Astelehenetik igandera / 17:00 - 20:00**

Sarrera: CAP-en izena eman

Izena emateko epea: 2018ko urriaren 19rarte

Nori zuzenduta: haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza edo edozein eremuko hezitzaileei zuzenduta.

Ikastaroa honetan, AHOTSA oinarritzat hartuko dugu bertatik abiatuz arte garaikidearen sorkuntzarekin harremanetan jartzeko.

### **Ongietorri ipuinetara**

**Nafarroako Liburutegia**

**asteazkena. 18.00etan**

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete haurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

### **Paisaien argazkigintzan trebatzeko tailerra**

**Karlismoaren Museoa**

**Octubre Foto Urria**

**Larunbata / 11:00 - 13:00**

Paisaien argazkigintzan trebatzeko tailerra Antonio Goñiren eskutik.

### **Especial Aperitifak + Akanpada**

**Huarte Zentroa**

**Larunbata / 11:30**

Sortzaileak: Irene Cabañas. Maddi Barber, Ekhi Huarte, David Mutiloa, Eva Chiara Trevisan, Celia Eslava, Jabier Villareal eta Naia Miraren.

Huarte Zentroak atea irekiko ditu, ikusleek aukera izan dezaten bertan lanean dauden artisten sorkuntzak ezagutzeko.

### **Periferia Birpentsatu Etxabakoitzen**

**Huarte zentroa**

**2018/10/08 - 2018/11/03**

EGILEA: Orekari Estudio / Enter This

Periferia Birpentsatuk, periferiako auzoetan espazio publikoa ber-bereganatuz, kultura garaikidea gerturatu nahi du.

### **Estudio irekiak 2018**

**Huarte Zentroa**

**Larunbata (11.30etatik a 14:00etara), igandea (11.00etatik 14.30etara) eta urriak 31 asteazkena (18:00etatik 21:00etara festa DJ bat eta mokaduarekin)**

Uharte Zentroan egonaldiak egiten ari diren artisten lantegien atea irekiko dira bertako sorkuntza prozesuak partekatzeko.

## **Sol y sombra**

**Huarte Zentroa**

**19/10/2018 - 02/12/2018**

Sortzaileak: Beatriz Sánchez eta Iñigo Cabezafuego

Sol y sombra aurkakoak diren elementuz osatutako edabe hordigarria da, zeinetan baikortasun dosi adina zirikatze eransten den. Emaizta eztenkada galanta da, edari honi ematen zaion izen peto-petoaren berdina.

## **ERAKUSKETAK**

### **Baxenabarre, lurralde berezia/ Basse Navarre**

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (Areto Nagusia)**

**2018/10/10 - 2019/01/13**

Susana Herreros Lopetegik komisariatutako erakusketa hau bi zatitan taldekatutako 16 beira-arasez osatuta dago, eta horietan, esparru txiki eta estrategiko horren bilakaera jarri dute ikusgai, jatorrietatik Frantziako Iraultzaren (1789) ondorioz erresuma bezala desagertu zen arte.

### **Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)**

**Nafarroako Artxiboan**

**2018/10/01 - 2018/10/31**

“Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)” erakusketa doakoa da, eta hilabete osoan zabalik egongo da Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko beheko galerian. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke asteko egun guztietan, asteburuak eta jai-egunak barne.

Berako tenorearen eta idazlearen ibilbideari eskainitako mikroerakusketa, jaio zenetik 125 urte betetzearekin batera, eta Ondarearen Europako Jardunaldien barruan kokatuta.

### **Macla, mamua, bismuto, vicario**

**Oteiza Museoak**

**2018/07/27 - 2018/11/30**

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: “la Caixa” Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak “Macla, mamua, bismuto, vicario” erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

### **Arkitektura eta Arkitektoak: Arraiza-Esparza-Gaztelu, 50 urte geroago**

**Nafarroako Parlamentua**

**10/10/2018 - 04/11/2018**

Nafarroako Gobernuako Administrazioaren Artxiboak omenaldia egin nahi die Nafarroako Arraiza, Esparza eta Gaztelu arkitektoei, eta, era horretan, erakusketa bat antolatu du Iruñean ez ezik, Foru Komunitate osoan ere bai.

### **Gazte Artea Garazi 2018**

**Huarte Zentroa**

**06/10/2018 - 01/11/2018**

Erakusketa

Donibane Garaziko Apezpikuen presondegian kokatua dagoen erakusketa honetan, Sorkuntza Gaztea Arte Garaikidea – Itzal Aktiboa 2018ko sariko obrak daude ikusgai. Artista hauek dira lanen egileak: Taxio Ardanaz, Miriam Isasi, María Jiménez Moreno, Blanca Ortiga, Natacha Sansoz, Irati Ironiza, Thomas Loyatho, Luis Olaso, Maite Pinto eta Léa Vessot.

## **BISITAK ETA IBILALDIAK**

### **Tuterako Katedraleko Judizioaren Ateko berritze lanak**

#### **Tuterako katedrala**

**Larunbata, igandea. 10:00etan 10:45etan, 11:30etan, 12:15etan, 13:00etan.**

Bisiten iraupena ordu erdi ingurukoa izango da eta gehienez 10 pertsona sartu ahalko dira txanda bakoitzean.

### **Iruñeko Katedraleko klaustroaren lanak**

#### **Iruñeko Katedrala**

**Igandea. 10.00etan, 11.00etan, 12.00etan**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan.

Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.